

Ahozko zentroa Subijanan

Mintzola du izena proiektuak ▶ 4



Kontsumoari buruz informatzeko autobusa

TOLOSA ▶ Atzo eta gaur izango da Trianguloan, Eusko Jaurlaritzaren kanpaina aurkezteko

BULEGOAK ▶ Kontsumo bulegoek urte osoan funtzionatzen dute Tolosan, Ibarrian eta Villabonan ▶ 2



Jokin Bildarratz alkatea eta Bernardo Goikoetxea Tolosaldea Garatzeneko kudeatzailea autobuaren aurrean Trianguloan. IRATXE ETXEBESTE

TOLOSA ▶



LEIRE MONTES

Helena Orkoien kantari ariko da

Mikel Azpirozek jende asko bildu zuen Musikarian ▶ 3

BEDAIO ▶

Urteroko Harri Festa egingo dute gaur

Meza, bertsolariak, bazkaria eta afaria izango dira ▶ 5

TXARAMA ▶

Gazte afaria izango da bihar, jaiak hasteko

Asteburu osoan izango dira jaiak ▶ 6

ARESO ▶

Ikasleentzako diru laguntzak emateko deialdia egin du Udalak

Eskola adinekoentzat dira eta udal idazkaritzan eskatu behar dira ▶ 7



Aresoko eskola eta jolastokia. JAIONE ASTIBIA

GIZARTEA ▶

Kontsumoaren autobusa

Atzo aurkeztu zuten Tolosan Eusko Jaurlaritzaren kanpaina; gaur ere Trianguloan izango da autobusa

IRATXE ETXEBESTE

Oinarrizko arloa da kontsumoa egungo gizartean. Hala irizten dio Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak, eta horregatik, «kontsumo arduratsua, kritikoa eta adimentsua» sustatu nahi du herritarren artean. Nola? Kontsumitzaileei «trebakuntza eta informazioa emanez».

Atzo Trianguloan izan zen autobusa da, hain zuzen ere, helburu hori betetzeko Eusko Jaurlaritzak, Tolosako Udalarekin eta Tolosaldea Garatzenekin batera, jarri duen bidea. «Kontsumitzaileak desinformatuak daude. Horren ondorioz, eskuratzen dituzten produktuen edo kontratatzen dituzten zerbitzuen gainean galdera asko izaten dituzte: zer eskubide dituzten, informazioa non lor dezaketen, erreklamazioak non jarri behar diren...». Zalantza horiei argibideak emate aldera abiarazi dute Kontsumo Bus 2004 kanpaina.

Hala ere, hedatze («kanpaina soil bat baino gehiago») da Kontsumo Busa ekimenaren sustatzaileen hitzetan. Kontsumitzailea informatzeko zentro ibiltaria da, eta espazio eta jarduera ezberdinak eskaintzen ditu. 15 metro luzeko autobusak diseinu erakargarria du, eta guztiz egokitua dago: harrerarako eremua, trebakuntzarena, teknologia berriena eta kontsumo terraza ditu.

Harrerarako eremuan kontsumoari buruzko informazio interesgarria ematen dute, eta Kontsumo Zuzendaritzaren argitalpenak kontsulta daitezke. Trebakuntza eremuan Kontsumo Zuzendaritzaren DVDa eta informazio panelak ikus daitezke; trebakuntza jarduerak egiteko tokia ere badago bertan. Teknologia berrien eremuan satellite bidezko Internetarako sarbidea dago autokontsultarako diren sei ordenagailuetan: kontsumo gaiet buruzko webguneak kontsultatzeko aukera ematen dute, eta, era berean, Kontsumo Zuzendaritzak argitaratutako material didaktikoa erabil daitezke. Azkenik, kontsumo terraza informazioa jasotzeko eta atari zabalean trebakuntza eskaintzeko egokitzen den kanpoaldeko eremua da.

Jarduera horiek biztanle guztiek in pentsatuta eginak daude, baina bereziki gazteentzat eta helduentzat dira. Edo-



Gaztekoenak nahiago dute ordenagailuari begira egon; kontsumo gaien inguruko jokoetan aritu ziren atzo arratsaldean makina bat. I. ETXEBESTE



Goikoetxea eta Bildarratz, atzo, Kontsumo Bus aurkezten. I. ETXEBESTE

KONTSUMO BUS ▶

Kontsumo Busa EAEko 40 herritan izango da aurtan. Tolosan gaur izango da —atzo ere izan zen herrian—, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara, Triangulo plazan.

▶ Kontsumo Bulegoa.

Tolosan. Astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan, Kultur Etxean.

Villabonan. Ostegunetan, udalbelean.

Ibarran. Asteartetan, Kultur Etxean.

Tolosaldea. 904 201 202.

nork sartu ahal du bertan, eta bi teknikaririk kontsumo gaiet buruzko azalpenak ematen dituzte. Gainera, kanpaina bera, kanpainaren edukiak eta Kontsumo Busaren baliabideak aurkezten dituzte: infoteka, li-

burutegia, liburuxkak... Eusko Jaurlaritzak bost liburuxka argitaratu ditu kanpainarako: *Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak*, *Kontsumo arbitrajea*, *Kontsumo kredituak eta zorpeketa*, *Bidaiariaren eskubideak eta Eguzkitan jarri aurreko ardurak*.

Trebakuntza jarduerak

Kontsumo lantegiak, kontsumoko ikasgela teoriakoak eta praktikakoak, hitzaldi monografiakoak eta merkatariei zuzendutako bisita pertsonalatuak eskaintzen ditu Kontsumo Busak trebakuntza jardueren baitan. Atzo arratsaldean euskaltegi ikasleekin egin zuen bat HITZAK bertan, eta kontsumoaren «ezagutza sakona eta zehatza» jaso zutela adierazi zioten euskara ikasleek. *Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak* hitzaldia aditza-

joan ziren autobusera, eta baita, bide batez, euskara lantzeraren bitartean, bitartean, ordenagailuei z.

Goizean egin zuten, ordea, Kontsumo Bus kanpainaren aurkezpena Tolosako alkate Jokin Bildarratzek eta Tolosaldea Garatzen agentziako Bernardo Goikoetxeak. Egungo gizarteak salerosketarekin «zerikusia handia» duela zioen Bildarratzek, eta, ildo horretatik, kontsumoa «oso garrantzitsua» dela. «Kontsumitzailearen betebeharrak ezagutzen ditu herritar orok, baina askok ez dakite zer eskubide dituzten kontsumitzaile gisa».

Hala, Kontsumitzaile Bulegoak urte osoan eskaintzen duen zerbitzua «bultzatu beharrek» dela esan zuen Tolosako alkateak. Izan ere, bulegoaren bitartez kontsumitzaileen arazoak %90i irtenbidea ematen zaio. Egunetik egunera gero eta erabiltzaile kopuru handiagoa izanagatik, gehiago ezagutarazi behar da zerbitzua Bildarratzen ustetan, eta horretarako «beharrezkoa da kontsumitzaileen iritzia ezagutzea».

Kontsumitzaileen Bulegoak ematen duen zerbitzuetako bat kontsumoko arbitrajea da. Merkataria eta kontsumitzailearen artean arazoaren bitartekari lana egiten du, ezaugarri nagusi batekin: auzitegira jo gabe konpontzen du arazoa. Prebentzio gisa ere erabili behar da zerbitzu hori arduradunen aburuz. Bulegoa urte osoan dago zabalik. Kontsumoaren autobusa Tolosan izango da gaur ere.

ZER IRUDITZEN? ▶

PELLO BALSERA

(ASTEASU)



«Euskaltegian esan ziguten kontsumoari buruzko hitzaldia zegoela, eta gai hori lantzen ari garenaz, egokia iruditu zait. Euskaraz izatean hizkuntza lantzen dugu, bide batez; ulermena batik bat. Euskara ikasteko guztiak baido, izan ere».

JUANTXO MARTINHO

(VILLABONA)



«Nire kideak bezala, euskaltegi-koek gomendatu zigutelako etorri naiz. Kontsumoaren inguruan zer edo zer ikasi badezakegu, gainera, hobe. Autobusa erakargarria da kanpotik, kolore biziak gure arreta pitzen dute, eta barrutik gela bat dirudi».

AINHOA EIZMENDI

(TOLOSA)



«Kontsumoaren jokoak ditut gustukoak, ordenagailuan daudenak, jolastuz asko ikasten delako. Zure izena eta pisua jarriz gero zer elikagai jan behar duzun esaten dizu jokoetako batek, eta atsegin dut hori. Lagunek gomendatu didate hona etortzeko».

MUSIKARIA 2004 ▶

Helena Orkoien abeslariaren kantu emanaldia, gaur

Atzo, jende asko bildu zen Musika Eskolara Fran Iturberen, Mikel Azpiroz eta Karlos Aranzegiren saioa entzuter

LEIRE MONTES

Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolak antolatutako X. Musikiariak aurrera darrai, eta ikus-entzule ugari elkartzten ari da egunero. Atzo, jende asko bildu zen Pablo Gorosabelgo entzutigira Elkano Browning Cream hirukotearen —Fran Iturbe, Mikel Azpiroz eta Karlos Aranzegi— kontzertua entzuter. Gaur, berriz, Helena Orkoien kantu emanaldia izango da entzungai, 19:00etan.

Helena Orkoien Tolosan jaio zen, 1986an; 17 urte ditu. Oso txikia zenean hasi zen abesten, Tolosako Hodeitruk abesbatzan, eta musika klasikorako zaletasun handia azaldu zuen, kantu lirikorako, hain zuzen ere. Horrela, 13 urte zituenean, ahotsa hobetzeko ikasketak hasi zituen Ordiziako Musika Eskolako Amalia Ibañez irakaslearekin.

Azken urteotan Valladolideko Nazioarteko Ikastaroan parte hartu du; gainera, onartua izan zen eskatutako gutxiene-



Elkano Browning Cream hirukotearen emanaldia, atzo. LEIRE MONTES

ko adina ez izan arren. Iaz, Musika Nazioarteko Torneoan hartu zuen parte. Gainera, kontzertu ugari eman ditu Beasainen, Extremaduran (Espainia), Lasarten, Legorretan, Ordizian, Donostian eta Tolosan.

Duela gutxi Ataunen egindako Gipuzkoako Kantu Lehiaketan bigarren izan zen, bakarlari arloan. Horrez gain, Euskadiko Kantu Txapelketan Gipuzkoa

ordezkatzeko aukeratua izan zen. Laster ekingo dio erronka berri horri, Donostian. Egun solfeo eta piano ikasten ditu Tolosako Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolan.

Gaurko emanaldian zortzi kantu eskainiko ditu. Jesus Guridiren *Mirentxu* obran Virginia Mendiak, Miriam Bereauk eta Mariaje Rekondok lagunduko diote pianoan.



Eraikuntza grebaren hirugarren astea

EKONOMIA ▶ Hirugarren astea bete da jada eraikuntza sektorea greban hasi zenetik. Atzo hainbat lagunek protesta egin zuten goizean Maxi Eroski aurrean. Eskualdean, egunero 09:00etan egiten dute kontzentrazioa, Tolosako Trianguloan. Eta asteartetan, gainera, berriro

biltzen dira, 12:00etan, leku berean. Ostiralero, berriz, Gipuzkoa mailako manifestazioa egiten dute, Donostian. Bihar, 09:30etik 11:15era bitarte protesta egingo dute Adegri patronalaren aurrean, eta horren ondoren manifestazioan abiatuko dira. DANI GIBELALDE

MENDIA ▶

'Asteburuan zer' ekimenean, Uzturrera iguera

Asteburuan zer ekimenaren baitan, eta Alpino Uzturre Mendi Elkarrekin urtero antolatzen duen ibilaldiarekin bat eginez, IV. Uzturre iguera egingo dute igandean. 09:00etan elkartuko dira guztiak Santa Klaran. Uzturren hamaiketako egingo dute, trikitilariak alaituta. Eta 15:00etatik 17:00etara, Izaskunera itzultzean, Gorritiren abereen erakusketa ikusi ahal izango dute; gainera, potoken gainean ibiltzeko aukera izango dute gaztetxoek.

ZESTA-PUNTA ▶

San Joan txapelketako partidak, bihar

Zesta-puntako San Joan txapelketako partidak jokatuko dira bihar. 17:30ean, Arkaitz Izagirre eta Patxi Plazaola lehiatuko dira. 18:00etan, Ignacio Gabarain-Oier Zaldua eta Joseba Esnaola-Jagoba Narbarte bikoteak; eta Borja Sanchez-Mikel Sadaba eta Beñat Lopez-Asier Alberro 18:30ean. 19:00etan, Aritz Izagirre eta Xabier Goikoetxea izango dira aurrez aurre. Unai Alberro eta Jon Zulaika, 19:30ean; Xabi Bildarratz eta Joseba Zuloaga, 20:00etan; eta, azkenik, 20:30ean, Carlos Erasquin eta Alain San Sebastian izango dira aurkari. Partida guztiak Beotibarren jokatuko dira.



Zesta-puntistak. HITZA

MUSIKA ▶

Brigada Criminal eta Stupenda Jones kontzertuan

Asteburua berriz ere musika jantzi dute Bonberenea etxekoek. Izan ere, bihar musika emanaldi aparta antolatuko dute: Brigada Criminal eta Stupenda Jones taldeek kontzertua eskainiko dute etxean, 22:30etik aurrera. Bestalde, ekainaren 5ean ere (larunbata), egongo da emanaldirik Bonberenean: Akauzate eta Atom Rhumba taldeak igoko dira taula gainera; 22:30ean hasiko da kontzertua.

GIZARTEA ▶

Zurutuzari buruzko erabakia atzeratu dute

Otsailaren 4an Biriatur (Lapurdi) atxilotu zuten Josean Zurutuza errefuxiatu tolosarraren estradizio eskaeraren helegiteari erantzuteko ziren atzo, baina Paueko Korteak erabakia datorren ekainaren 9ra arte atzeratu egin du. Leporatzen zaizkion ekintza gehienak preskribatuta daudela onartu arren, Espainiako agintariak kasu bat preskribatu gabe dagoela diote. Zurutuza frantses herritar-tasuna dauka.

HITZA, eskualdeko plaza
661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

ESKERTZA ▶
JOSE MARIA SAN SEBASTIAN IZAGIRRE jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta fileta elizkizunetara etorri zineten guztiok.
Tolosa, 2004ko maiatzaren 27a

VILLABONA ▶ HIRIGINTZA

Ahokotasunaren inguruko zentroa izango da Subijana

Mintzola zentroan, Subijanan, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte eta Xepelar Dokumentazio Zentroa bilduko dira

GARAZI AZKUE

Pasa den astean aurkeztu zuten Donostian Villabonako Subijana etxerako prestatu duten proiektua, *Mintzola Ahokotasunaren inguruko zentroa* egokituko dute Villabonako eraikinean.

Zentro honetan, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte eta Xepelar Dokumentazio Zentroa egongo dira. Bi elkarte hauek, «euskal ahokotasunaren eremuan erreferentziatzeko elkarteak dira» aurkezpenaren azaldu zuten.

2005 urtearen bukaeran irekiko dute zentroa, baina aurretik, eraikina egokitu behar dute. Zentroak milioi bat euroko aurrekontua izango du.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) baitan kokatzen da proiektu hau, «euskaren etorkizuna bermatuko duen azpiegitura estrategikoa» bideratzeko, hain zuzen ere.



Subijana etxean kokatuko dute Mintzola zentroa. G. AZKUE

«Herrialde garatueta garrantzi handiagoa ematen diote letrari, idatzitako hitzari, ahokoari baino. Baina euskaldunon ahoko tradizioa eta gure artean ahoko adierazpen ezberdinek duten ohiartza ez da txantxetako», azaldu zuten aurkezpen ekitaldian. «Ahoko tradizio hori jaso, landu, garatu eta ezagu-

tza eman duena Euskal Herriko Bertsozale elkarteak izan da azken urte hauetan».

Villabona-Amasako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Xepelar Dokumentazio Zentroak ahalbideratuko dute ahokotasunaren inguruko proiektu hau.

HEZKUNTZA ▶

Haur Eskolan izena emateko epea ostirala bitarte irekita

Ostiralean amaituko da izena emateko epea, 0-3 urte bitarteko haurrentzat

G. AZKUE

Ostiralean amaituko da, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak Haur Eskoletan matrikulatzeko epea.

Patzuergoak Tolosaldeko hainbat herritan lan egiten du udalekin elkarlanean eta aurreko urteetan Tolosaldean izandako Haur Eskolez gain aurten beste bi herri gehiagotan izango da aukera hori. Orain arte, Orendainen, Berastegin, Elduainen, Iruan eta Lizartzan zuten zerbitzua. Datorren urtetik aurrera, Baliarrainen eta Anoetan ere izango da txikiak Haur Eskolara eramateko aukera.

Baina aipatu herrietako biztanleez gain, kasu gehienetan inguruko herritarrek ere izango dute zerbitzua baliatzeko aukera.

Izena eman nahi duten gurasoek aipatu herrietako udaletxeetara jo beharko dute matrikula egiteko; bestiere, ostirala baino lehen.

AIZTONDO ▶

Janari potetan sartzeko ikastaroa

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak, janaria potetan sartzeko ikastaroa antolatu du Aiztondoko biztanleentzat. Ikastaroa, maiatzaren 31n hasiko da eta ekainaren 28a bitarte luzatuko da. Egun horietan, 18:30etik 20:30era izango da ikastaroa, Larraulgo Katillutxulo elkartearen. Izena eman ahal izateko, Aiztondoko bulegora jo beharko da, edo 943 69 39 30 telefonora deitu, maiatzaren 28a baino lehen. Ikastaroaren prezioa 30 eurokoa da.

ZIZURKIL ▶

Didjeridu kontzertua bihar Atxulondon

Maiatza Saltsan kultur hila-betearren egitarauko azken ekitaldiak ari dira burutzen Zizurkilen. Hurrengo ekintza bihar izango da, Didjeridu kontzertua. Australiako doinuak gerturatuko dira Zizurkilera, Iban Nikolai musikariaren eskutik. Didjeridua, australiar aborigenek erabiltzen duten haizeko instrumentua da, munduko zaharrenetakoa. Kontzertua, bihar 22:00etan hasiko da Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean.

ASTEASU ▶ GIZARTEA

0-2 urteko haurreskolaren inguruko bilera izango dute udaletxean

0-2 urteko haurren gurasoei zuzenduta dago; 18:00etan izango da

G. AZKUE

Asteasuko Udalak, datorren ikasturterako, 0-2 urte bitarteko haurrentzat Haur Eskola jartzeko asmotan dabil.

Horren inguruan hitz egiteko bilera deitu du Asteasuko Udalak. Bilera 0-2 urte bitarteko haurren gurasoekin egingo du Udalak.

Elkarteratzea, gaur bertan

izango da, Asteasuko udaletxean, 18:00etan. Bertan izango da Eusko Jaurlaritzako aditu bat, Haur Eskola honen inguruko informazioa errazteko.

Bilera honetarako hitzordua jarri aurretik galdeketa egin zuen Udalak asteasuaren artean, eta zerbitzu honen inguruko interesa badela ikusi zuten. Azken aldi honetan haur asko jaio baita Asteasun.

Beraz, hauei guztiei zerbitzu hau eskaintzeko asmotan bilera egingo dute gaur Udalak eta gurasoek. Baina esan bezala, 0 eta 2 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoentzat izango da bilera.

Bestalde, matrikula egiteko garaia ere badenez, bilera egunean bertan banatuko dituzte matrikula inprimakiak, nahi duenak bete ahal izateko.

VILLABONA/IBARRA ▶ GIZARTEA

Garin eta Arreseigor bertsolari txapelketan

Eskolarteko txapelketako finalerako sailkatu dira billabonatarra eta ibartarra

G. AZKUE

Ostiralean izango dute bertsolari finala, Naiara Arreseigor ibartarrak eta Aritz Garin billabonatarak. Bi gazteak Gipuzkoako Eskolarteko 24. Gazteen Bertsolari Txapelketako finalera iritsi dira.

Ekitaldia Zarautzko Aritzbaletalde pilotalekuan izango da,

ostiralean 16:45ean. Egundorretan, Andoni Egaña egongo da aurkezle eta gai jartzaile lanetan.

Bi gazte hauek gain, Oiarzungo Alaia Martin eta Karmele Mitxelena, Ataungo Aitzol Munduate, Zarauzko Oier Aizpurua eta Añorgako Beñat Gaztelumendi eta Unai Gaztelumendi izango dira lehiak.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



ALEGIA ▶

Haur Eskolaren inguruko bilera, Kultur Etxean

Haur Eskolaren inguruko bilera deitu dute gaurko zerbitzu hori martxan jartzeko interesa duten gurasoek. Bilerak, Kultur Etxean izango da 19:00etan. Alegian, 0-2 urte bitarteko haurrentzako Haur Eskola jartzeko interesa duten herritarrei bilerara agertzeko gonbitea luzatu diete.

IKAZTEGIETA ▶

Gurasoei zuzendutako hitzaldia, bihar

Guraso ona, guraso arduratsua? Gurasoa eta kitto! lelopean hitzaldia eskainiko dute bihar Izar Arregik eta Miren Telleriak. Bereziki gurasoei zuzendutako hitzaldia izango da. Udalak eta Guraso elkarteak antolatutako jardunaldi hau 15:00etan izango da Kirolegian.

ALEGIA ▶

Trafiko arazoak, kamioi batek karga galduta

Trafiko arazoak izan ziren atzo goizean N-1ean Gasteizko norabidean, Alegia inguruan, egurrak garraiatzen zuten kamioi batek kargaren zati bat galtzearen ondorioz. Istripua 06:30ean gertatu zen eta Ertzaintzak eskuineko bidea itxi behar izan zuen erorritako enborrak kentzeko.



BEDAIO ▶ GIZARTEA

Festa giroan joango dira aurten ere Harri Jaiako ekitaldiak

Meza nagusiarekin hasi eta hamaiketakoa eta bazkaria egin ondoren, afariarekin emango zaio amaiera egunari



Hamaiketakoa egingo dute, aurten ere, mezaren ondoren. M. JAUREGI

OLAIA ESKITXABEL

Aspaldiko usadioa jarraituz, Harri Jaiak izango da gaur Bedaion. Eguraldi ona eskatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte, aurten ere: «Azken urteetan bezala, egun osoko festa» prestatu dutela azaldu dute antolatzaileek.

11:00etako meza nagusiarekin

emango zaio hasiera Harri Jaiari; ondoren, gerturatzan dienez hamaiketakoa izango da elkartean. Bazkal ordua iritsi bitartean, Joxe Agirre eta Gregorio Larrañaga, *Mañukorta*, bertsolariak ariko dira.

Eguerdiko partean, urteroko bazkaria egingo da elkartean: «Izan ere euskaldun jatorrak bezala, ospakizunetan mahai

HARRI JAIK ▶

EGITARAUA

11:00. Meza nagusia. Ondoren, hamaiketakoa elkartean.

12:30. Joxe Agirre eta Gregorio Larrañaga, *Mañukorta*, bertsolariak.

13:30. Bazkaria elkartean. **Amaitutakoan.** Bertsolarien bigarren saioa eta trikitilarien emanaldia.

21:00. Afaria elkartean.

inguruan biltzen gara», diote antolatzaileek. Bazkal ondorenean, bertsolarien bigarren saioa eskainiko dute; trikitilarien doinuak ere izango dira entzungai. Bertsolarien txistak ere entzuteko parada izango da. Eta mahaietik altxatzeko denborarik izan gabe, berriro mahaiaren bueltan bilduko dira bedaiotarrak afal orduan.

Pilota kontuak hizpide

ALBIZTUR ▶ Pilotaren inguruko hitzaldia izan zen atzo Arkaitz elkartean, Kultur Astearen barruan. Aurkezle eta moderatzaile lanetan, Millan Telleria albizturdarra aritu zen; ondoan, Abel Barriola eta Mikel Goñi pilotariak eta Anizeto Lazkano entrenatzailea izan zituen. Entrenamenduak, txapelketak... izan zituzten hizpide. Bihar, Errenta Aitorpenari buruzko hitzaldia izango da 20:00etan hasita Kultur Etxean. O.ESKITXABEL



Antzerki topaketak

ALBIZTUR ▶ Antzerkiarentzat tartea hartu zuten atzokoan Albizturko, Bidegoiango, Errezilgo eta Aizarnako eskoletako gaztetxoek eta irakasleek; barreari keinu egiteko aukera izan zuten guztiek. Urtero bezala, antzerki saioak eskaini zituzten eskola bakoitzeko gaztetxoek; aurten, Albizturten bildu dira. Errezilgoen antzerki saioa pilotalekuan egin zen; gainontzekoak, berriz, eskolan. O.ESKITXABEL

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:



TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
 Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Baliarrain. Medikua: 88 90 03
Berastegi-Elduain. Medikua:
 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Orexa. Medikua: 68 22 28
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Amaro zko dispen.: 67 26 37
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ Tolargi: 65 00 16
 ▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Tolosa gasa: 67 53 20
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
 ▶ Aurrerazkaria: 30 07 32
 ▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888
 ▶ Txolarre Irratia: 69 80 38
 ▶ Karrape Irratia: 948 610914

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olatreaga A. Korreo kalea
 2 (Tolosa). 67 01 28. Gimeno A.
 Elbarrena 52 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publi@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
 anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
 leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

OPARIAK

Ardi txakurra. Ardi txakur bat
 oparitzen da, bost hilabetekoa.
 Telefona: 948-51 03 48
 (14:30etik aurrera).

SALGAI

Altzariak. Gela eta salako
 altzariak salgai, oso egoera
 onean. Tel: 626-84 76 26.

TXARAMA ▶ JAIK

Bihar, gazte afaria eta suziria jaurtitzearrekin hasiko dira jaiak

Larunbatean, besteak beste, pailazoak, talo-jana eta sagardo dastaketa izango dira; igandean, helduen jolasak



lazko festetan jokatutako toka txapelketako une bat. IRATXE ETXEBESTE

EGITARAUA ▶

MAIATZAK 28

21:00. Gazte afaria herriko plazan.
23:30. Jaietako hasiera emateko suziria. Jarraian, Laiotz taldearekin dantzaldia goizalderarte.

MAIATZAK 29

12:00. Tortila patata lehiaketa.
17:30. Kiki eta Moko pailazoan saioa.

19:30. Talo jana eta sagardo dastaketa.
23:00. Saioa eta Alabier Trikitixa taldea. Segidan, DJ festa goizalderarte.

MAIATZAK 30

12:00. Toka Txapelketa herrikoia. Bitartean, Beñat eta Lierni trikitilarien saioa.
14:30. Herri bazkaria.
18:30. Helduen jolasak. Beñat eta Lierni trikitilariak amaitzeko.

DANI GIBELALDE

Ostiralean hasiko dira Txaramako jaiak, gazte afariarekin eta suziri jaurtiketarekin. Gauean, Laiotz taldea ariko da. Antolatzaileek diotenez, Laiotz behin baino gehiagotan aritu da Txaraman. «Giro polita jartzen dute; taldea gustura dago herritarrekin, baita herritarrek taldearekin ere».

Larunbat arratsaldean, pailazoak izango dira lehen aldiz, Kiki eta Moko, hain zuzen. Eguraldi ona eginez gero plazan izango dira, bestela Kultur Etxean. «Espero dugu saioa jendearen gustukoa izatea, eta inguruko herrietako haurrak ere gonbidatu nahi ditugu».

Azpimarratzekoa da larunbateko talo-jatea eta sagardo dadastaketa. «Auzoko jende asko taloak egitera jaisten da, eta giro polita sortzen da». Sagardo laguntzaileak Otazu, Eguzkitza eta Isastegi izango dira. Igandean, herri bazkariaren ondoren, helduen jolasak: «iaz egin ziren lehen aldiz, eta jende dezente animatu zen».

IBARRA ▶

'El proyecto de la bruja de Blair' gaur Gaztetxean

Josuah Leonard zuzendari estatubatuarren *El proyecto de la bruja de Blair* filma eskainiko dute gaur doan Gaztetxeko zine-klubean, 21:30etik aurrera. Filmak ordu eta berrogei minutu irauten du.

ELDUAIN ▶

Egues preso politikoen mintzaide

Euskal Preso Politikoen Kolektiboko lau mintzaidetako bat izatea aukeratu dute Ana Belen Egues, Brievaloko espetxean dagoen preso elduain-darra. Larunbatean Donostiako Miramar jauregian egin zen Nazioarteko Elkartasunezko Konferentzian jakinarazi zuten berria. Bertan eztabaidatu zuten ponentzia egin zuenetako bat da elduain-darra, eta esan bezala, kolektiboko bozeramaileetako bat izango da.

IBARRA ▶

Izaskungo jaietako zikiro-jaterako txartelak salgai

Igandean izango dira Izaskungo jaietako ekitaldi ugari. Horieta bat eguerdiko zikiro-jatea izango da. Prezioa helduentzat 15, eta haurrentzat 7 eurokoa da. Txartelak salgai dira Atari, Zubiaurre, Sendi-Ekintza, Izaskun taberna eta Izaskun jatetxean.

IBARRA ▶

Presoen aldeko kontzentrazioa izango da bihar

Bihar, hileko azkeneko ostiral guztietan bezala, euskal preso politiko eta errefuxiatuen aldeko kontzentrazioa egingo da 19:30ean herri sarrean. Kontzentrazioaren ondoren, idatzi bat irakurriko da. Ibarrako hiru presoek jasaten dituzten eskubide murrizketaz informatzeko. Ondoren azaltzen diren guztiei, Tolosara joateko gonbidapena egingo zaie, Edorta Agirre Mauleoni egingo zaion omenaldira, alegia. Beraz, herritarrei agertzeko gonbidapena egin die herri ekimenak.



Giro polita San Ignazio jaietan

IBARRA ▶ Joan den asteburuan egin zuten San Ignazio auzoko festetan giro polita izan zen nagusi. Larunbat goizean, haurrentzat festa izan zen Emeterio Arrese lorategian. Arratsaldean futbol partidua izan zen Ibarra eta

Idiazabalen artean, eta gauean, Tucan orkestraren kontzertua. Igandean, meza, pilota partidak, toka eta bolo txapelketa izan ziren. Tortila patata txapelketarekin eta auzoko bazkariarekin amaitu ziren festak. D. GIBELALDE

LEITZA ▶ KULTURA

'Ingurutxo'-ren inguruan eztabaida interesgarria

'Ingurutxo lehen eta orain. Eta gero?' mahai-inguruan argi gelditu zen dantza bizia dela eta geroa ziurtatuta duela



Astarteko mahai-inguruko irudiak, soineko eta guzti. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Astearte iluntzean burutu zen mahai-ingurua arrakastatsua izan zen erabat; Aurrerako aretoa jendez mukurua bete zen. Izan ere iragarria zegoen gaia oso errotuta dago bertan: *Ingurutxo*. Eta bere iragan, oraina eta geroaz aritu ziren jolasean: bere doinuez, pausoez eta arropoz.

Han esan zenaren arabera, txistulariak hasi omen ziren doinuen gaia aztertzen, nondik norako aldaketak eta jasan ote zituen ikertzen. Hasieran belarrik ikasi eta jotzen omen zituzten dantza horren pieza guztiak, belaualdiz belaualdiz horrelaxe transmititu omen da, baina «plazan jotzen genuenean pieza batzuk jotzen genituen, aldiz parrandan genbil-

tzenean, beste batzuk. Orduan oharatu gara, akaso *Ingurutxo*ak bestelako doinu batzuk ere izan zitzaizkela». Hari horri tiraka, Olazarane argitaratu zuen *El dantzari abertzale* liburua ere egin zuten topo eta bertan *Ingurutxo*ko doinuek partituran publikatuta ageri omen dira. Eta konparaketa eginez aldea bada goela ziurtatu dute. Eta «harrigarria bada ere, zenbait piezak letra ere» badutela jakin.

Pausoei dagokiela ere, bai omen dago alderik dantzarien esanetan. Aipatu liburu horretan xehetasun osoz ageri omen dira garai hartako dantza estiloaren ezaugarriak: soka eta inguruak egiten zituzten soilik, hankak arrasta samarrean, besoak erdi goratuak eta neska aldera okertuta «ligatzeko kei-

nuak eginez eta. Kontutan hartu behar da dantza hau espontaneoki egiten zela eta neska-mutilen arteko harremanak sortzeko eta, une eskasenetara izaten zela».

Arropen arloan omen dago alderik nabarmenena ordea. Zioten «gerra aurrean eta, jendea zuen arroparik hobereanekin ateratzen zen dantzara. Denak desberdin jantzita. Berdin jaztearena gerora etorri zen, erakusketekin eta». Nesken zapia aipatu zuten adibide gisa. Lehendabizi zapia kolore oso bizitako izaten omen zen eta mutilari eskaintzen omen zitzaion. Egun berriz, zuria erabiltzen da.

Kontuak kontu, Aurrerako dantza taldea arropa berriak egiteko bidean da, lehengo garietako estilokoak. Horretarako XX. mende hasierako argazkietatik ateratu dituzte diseinuak. Larunbatean, goizean eskean ibiliko dira herrian barrena gastuei aurre egiteko.

Oraingo eta lehengoaren arteko aldea, arratsaldez ikusteko aukera izanen da.

GAUR ▶ DIAPORAMA

Gaia. Txina, dragoia ernatzen delarik.

Hizlariak. Jon Abril eta Asier Gorgortza.

Ordua. 20:00.

Tokia. Zinema.

ARESO ▶ GIZARTEA



Aresoko eskolako jolastokia. J. ASTIBIA

Udal laguntzak eskolaz kanpoko heziketarako

Eskola adinean dauden herriko umeentzat da, eskaerak udal idazkaritzan eginez

J. ASTIBIA

Aresoko Udalak bando baten bidez jakinarazi duenez ikasleentzako laguntzak emateko deialdia egin du.

Laguntza hauek eskolaz kanpoko heziketa eta irakaskuntzara bideratuta daude, arlo horretako gastuei aurre egiteko diru laguntza modura, beti ere eskola adinean daudenentzat.

Eskaerak udal idazkaritzan egin behar dira eta aurtengo ikasturterako balio dute, alegia urtebeteko epea izanen du diru laguntza honek. Esan behar da gehienez justifikatzen den gastuaren %50 a jasoko dela onura izan dezakeen jarduerara bakoitzeko.

Diru laguntza Aresoko herrian erroldatuta gurenean urte bete daramaten sei eta hamasei urte bitarteko gazteak egin dezakete eta nahiz hezkuntzan, nahiz bestelako

ikastarotan egindako gastuak agiriaren bidez justifikatu behar dira beti, alegia fakturak, ordainagiriak... aurkeztu beha dira laguntza jaso nahi bada.

Ilbeltza eta ekaina bitartean egindako gastuak gutxienez aurkeztu daitezke diru laguntza eskaerarekin batera. Horik urte bukaerainoak berri, abenduan.

Ttipi ttapa doan

Bestalde, aspaldikotik Areson *Ttipi ttapa* aldizkaria doan jaso dezakete herritarrek horrela nahi izanez gero. Horretarako egin behar den bakarra, bertara deitzea da, 948 635458 telefono zenbakira zehazki eta Joxe Manuel Irigoienez galdetu.

Aresoko Udala egin da herritar guztien harpidetzaren kargu eta ez dute deus ere ordaindu beharrik.

MANDIO ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

Tolosa. Korreo kalean 70 m²ko etxebizitza salgai, kanpoaldera begira. Balkoiarekin. 31.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Laskorain kalean etxebizitza ugari salgai, 3 gelakoak 33.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Lurre auzoan etxe abikia salgai; lorategia, terraza eta bimenetaz hornitua. Politea. 76.000.000 pzt. 669 87 19 09.

Tolosa. Erremontari kalean apartamentuak bi logela eta logela bakarrekokoak. 2 logelakoak 26.500.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Lurre auzoan etxebizitza salgai, 2 gela, igogailua eta berogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Kondeko aldan etxebizitza salgai, 90 m²-koa eta kanpoaldera begira. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Bidebietan etxebizitza salgai, egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Trianguluan garaje marra salgai. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoak. 33.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Etebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Bigarren eskuko etxebizitza salgai. 3 gela, egongela, terraza eta sukaldearekin. Mandio. 669 87 19 09.

Amezketeta. Duplexa salgai; 70 m²-koa, eraiki berria, igogailua eta berogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Zizurkil. Etebizitza salgai, garajea, bokoa eta baratza. Bista zoragarriekin.

40.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Lasarte. Etebizitza berria 98 m²-koa; garaje ibiarekin eta 22 m²-ko terrazarekin. 57.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Elduain. Ebe abikia 4 gelakoa eta 2 solairukoa. Mandio. 669 87 19 09.

Gorriti. 1.500 m²-ko lur saila salgai. Mandio 669 87 19 09.

Gaintza. Ebe bifamiliarrak eraikitzen ari dira. 39.800.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Aia. Azken etxebizitza. Ingurune naturalean hondartzatik 15 minutura, bi gelakoa apartamentuak; garajea aukeran.

29.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Corella. Ebe abiki rustiko berriak,

portbearekin, 2 gela, bainua eta sukalde horritua. Berria. 1.000 m²-ko

terrenoarekin. Mandio 669 87 19 09.

Aro. Errioxan etxebizitza salgai, 75 m²-koa eta hiru gelakoa 16.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. 669 87 19 09

Tolosa. Taberna salgai, bezeroekin; prezio interesgarrian. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. 428 m²-ko pabiloi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihebidetara ondoan. Telefona: 669 87 19 09.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Haur Eskolaz bilera Kultur Etxean 19:00etan.
Alegia. Datorren ikasturterako Musika Eskola jarri nahi da marbxan; hori dela eta bilera informatiboa egingo da bihar, 19:30ean udaletxean.
Asteasu. Haur Eskolaz bilera udaletxean 18:00etan.
Belautza. Bidarraien eta Nabarten, ekainaren 5 eta 6an egingo den piragua eta rafting irteerako izen-ematea ostiralean amaituko da. Izen-ematea, Kultur Etxean.
Ibarra. Igandean zikiro-jatea izango da Izaskunen. Prezioa helduentzat 15, eta haurrentzat 7 eurokoa da. Txartelak salgai dira Atari, Zubiaurre, Sendi-Ekintza, Izaskun taberna eta Izaskun jatebean.
Ikaztegieta. Bihar odola emateko aukera izango dute ikaztegiatarrek Kiroldegira gerturatuta.
Leitza. Txina, dragoia ernatzen delarik diaporama Jon Abril eta Asier Gogortzaren eskutik. Zinema 20:00etan.
Orendain. Helduentzako gimnastika saioa Erretore etxean 16:00etatik 17:00etara. Rakel Baz fisioterapeuta irakasle dela.
Tolosa. Igandean egingo den Ibilaldirako autobusak antolatuta ditu Galtzaundik Leioa-Sopelara. Izen-ematea: 19:00etatik 21:00etara, ostirala arte. Prezioa: 9 euro (bazkideek 6 euro).



Antzerki, dantza eta kantuak Arroan

VILLABONA ▶ Flemingo eta Pedro Mari Otañoiko ikasleek antzerki eta ikuskizun sorta eskaini zuten atzo Arroan. Otañoiko ikasleak gerturatu ziren hara, antzerkiak egiteko tramankuluak gainean zituztela. Otañoiko txikitxoek antzerkiak eskaini zituzten, eta Flemingo ikasleek dantza saioak eta kantuak eskaini zizkioten beste ikastetxekoei. Ikastetxeen arteko eikartruke hauek, ahozkotasuna lantzeko proiektuaren barruan kokatzen dira. G. AZKUE

ERAKUSKETAK

Alegia. Alejandro Gonzalez anoetarren margoak aurkitzen dira ikusgai Jubilatu Elkartean; oleoak eta akrilikoak.
Tolosa. Uztailak 3a bitarte ikusgai dira Aranburun Faustino Aranzabalen margolanak.

Tolosa. Javier Soto ordiziarrak eta Jesus Lopez Zulueta beasaindarrak bere margolanak ditu ikusgai Lanbroa tabernan.
Tolosa. Maribi Iparragirrek bere artelanak ditu Saikin tabernan.
Tolosa. Anjel Cuervo bidaiari eta abenturazale tolosarraren argazkiak ikusgai dira

Aranburun ekainaren 12a bitarte. Asteartetik larunbatera dago zabalik (astelehenetan eta jai egunetan izan ezik).
Zizurkil. Sükrü Karakus margolari turkiarraren erakusketa Atxulondo kultur etxean maiatzaren 30a arte egongo da zabalik.

HITZALDIAK

Albiztur. Errenta Aitorpenari buruzko hitzaldia eskainiko du Aitor Berasaluzek. Bihar, 20:00etan Kultur Etxean.
Ikaztegieta. Guraso eskola saioan, *Guraso ona edo guraso arduratsua? Guraso eta kitto!* hitzaldia izango da bihar, 15:00etan kiroldegian.
Tolosa. Ibon Martinek eta Alvaro Muñozek Travel BUG-i buruzko hitzaldia emango dute Kultur Etxean 20:00etan. Interrailen inguruko azalpenak, informazio turistikoak, interneten bidaiatzeko helbideak...

MUSIKA

Tolosa. Elena Orkoienen kantu emanaldia 19:00etan Musika Eskolan. Musikaria astearen barruan. Eta bihar, Artizar orkestrak kontzertua eskainiko du 20:00etan Musika Eskolan.
Tolosa. Brigada Criminal eta Stupenda Jones taldeen kontzertua. Bihar 22:30ean Bonberenean.
Zizurkil. Iban Nikolai oiartzuarraren Didjeridu kontzertua Maiatza Saltsan egitarauan. Bihar, 22:00etan Abulondo kultur etxean.

ZINEMA

Ibarra. *El proyecto de la bruja de Blair* Gaztetxean 21:30ean.
Tolosa. *La mala educacion.* Bihar Leidorren 19:30ean eta 22:30ean.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Itsaso Roteta (Ibarra). Gaur 11 urte. Zorionak erregrina. Muxu handi bat ebeko familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Itsaso Roteta (Ibarra). Gaur 11 urte. Zorionak zure gelako nesken partetik. Guapa!



URTE ASKOAN

Takolo. Gaur 36 urte. Zorionak gimnasiokoan partetik.



URTE ASKOAN

Nahia Barriola (Leitza). Gaur 11 urte. Zorionak eta muxu bat ebekoan partetik.

HITZA, zorion agurren tarteak

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri
argazkia bi egun lehenago.
Mila esker!